

¿MAITAGARRIA NOR DA?



(ECHEGARAY-KO KARMELO JAUN ON TA ADISKIDE BIOTZARI)

Ego Mater pulchræ dilectionis
(Eccli XXIV, 24)

Ederrak dira, itsas-ur-zabal
 Laban ta urdiñ, urdiñak,
 Ederrak, ibai ur-jarioak,
 Ederrak ibar berdiñak,
 Ederrak aran belar emalle,
 Zelai ta lora-soroak,
 Ederrak, chara, ostoz jantziak
 Ederrak garo-basoak.

Ederrak, mendi, mendiska, munu,
 Egi, aldapa, ta arkaitzak,
 Ederrak, oitan pariak dauden
 Isiru, tantai ta aritzak,
 Ederrak, saġar, marari, gaztaiñ,
 Lore ta gerbaz josirik
 Inguru denak daduzkatenak
 Beren usaiez beterik.

Ederrak dira, gaba ta eguna,
 Ederrak; eziñ ukatu;
 Ederra izar talde azia,

Ez dedikena kontatu;
 Ederra da, chit, illargia ta
 Eguzkiari ederrez
 Begiz begira ezin diogu
 Itsutzen gaitu nai ta ez.

Ederrak dira zeru-tar denak;
 Aita-len zarrak, Igerle,
 Errege, apaiz, Eleiz-gizonak
 Gudari, auzi-epalle...
 Ederrak beste eziñ kont-ala
 Gazte, Ezkongai, Ezkondu
 Biali, Odol eman izanak
 Aitorle, Zuzen ta Santu.

Ederrak oso, dudarik bage,
 Jainko mirabe apañak:
 Berri ekarle, oien aurreko,
 Jargoi ta aldun pikañak,
 Lentzadun eta menpe jabeak,
 Indartsun, eta azkena,
 Jakintsu malla eta maitari
 Kiskaltzen dagozenena.

Ederrak dira oiek guztiak,
 Libano-tika ordia,
 ¿Ez da agiri iñor datorren
 Modestipean gordia,
 Zeruko intza bezain isillik,
 Eztia bezain gozua,
 Nai dionaren deiera laister
 Makurturika burua?

¿Ez da agiri arros gizenik
 Jeriko alde orretan?
 Palma liraiñ ta orri zapalik
 Kades-ko muintegietan?
 Platanorika ez dakus iñon

Bere adarrak zabaltzen
iturgañera, itzalpe artan
Gizonak eran dezaten?

¿Ez da azaltzen inñondik eldu
Zume zimitza bezela
Aize pil-pilak biguntzen duen
Kezko torrerik? Bestela,
¿Oñetakotzat illargia ta
Eguzki bera jantzitan
Dakarren inñor, eta, buruki
Amabi izar garretan?

¿Ez da agiri kirats gozua
Darion eortzgarririk,
Usai utsagaz orditzen duen
Engadi-matsen ardorik?
¿Ez da agiri uso churia,
Berešia ta maitea,
Besterik bage, bakarrik dena
Oso eskerrez betea?

Au da ederra, Jainkoarentzat
Ausen asi ta azkena;
Jerusalen-go alaba belchen
Artean belcharanena;
Au da Jaunaren maite-maitea:
Maitagarria guretzat
¿Zeiñ izango da? *Naikuntz ederra*
Dala, diona,... deritzat.

MIGEL A. IÑARRA-K.

